

GIL 5 Leungo Harkaitzetako Buntsandsteina



Leungo Harkaitzetako bi paketeak oso ondo ikusten dira errepidetik. Behekoa konglomeratuz osatua dago, eta goikoa, berriz, hareharri gorriz. Oso ondo bereizten da beheko paketearen forma lentikularra.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 17' 56.59" N
Long.: 1° 49' 9.82" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 595.761,68 m
Y: 4.794.701,65 m



Nola iritsi

Aireko Palaziorako bidea, GI-3454, Oiartzun eta Irun artean. Oiartzundik igota, azalera-mendua ezkerrean dago, ezkerrean egiten duen bihurgune luze baten ondoren. Han utzi daiteke autoa, eta bi minutuan iristen da oinez.

GI Laren deskribapen laburra

Buntsandstein fazieseko Behe Triasikoko azalera-mendu ona, zeina Paleozoikoko materialen gainean baitago zuzenean. Buntsandsteinaren sekuentzia alubioi-kono handi batean eraturiko 400 metro hareharri eta konglomeratu gorriz osaturik dago; seriean aurrera egin ahala, gero eta distalagoa da, eta pikor finagoko arroka osatua dago.



Leungo Harkaitzetatik Aiako Harriko hertziniar mendigunearen, Buntsandstein formazioko klastoen jatorriaren, ikuspegi panoramiko bikaina dago.

Kasu honetan sekuentziaren behealdea ikus dezakegu; 7 metro inguruko lodierako pakete bat dago, ertz biribilduko kuartzoz eta presio-disoluzio aztarnaz osatutako konglomeratu lentikularra. Haren gainean beste pakete bat dago, antzeko neurriak dituen, nagusiki hareharri gorriz osatua. Hareharriek, bestalde, kuartzita eta mika asko samar dute, eta ertz aske biribilduen inklusioak dituzte. Barne-xafladura paraleloak eta gurutzuak ikusten dira, Bortzirietan eta Aiako Harrian urgaineratutako hertziniar erliebeetatik datorren alubioi-kono baten behealdearekin erlazionatutako jalkitze-ingurune bati dagozkionak.

Paketea, zeina 25° inguru okertuta baitago NNW-erantz, nabarmendu egiten da paisaian, haren gogortasuna eta higadurarekiko erresistentzia direla eta. $N135^\circ$ norabideko failek desplazaturik dago ukipena, eta, beraz, ez du jarraipenik alboetan paisaian.

Hormara iristeko bidean, Leungo Harkaitzetako gailur txikitik askatutako zenbait bloke handi ikusten dira; eskalada-eskola gisa erabiltzen da inguru hori.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 1, GIL 2, GIL 3, GIL 4, GIL 71, GIL 139.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 5, GIL 107, GIL 108, GIL 109, GIL 110, GIL 113.



Azaleramenduaren gainean daude hareharri gorriak nabarmen estratifikatuta daude, eta barne-xafladura ikusgarriak dituzte.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa	●			
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Azaleramendutik Aiako Harriko Paleozoikoko mendigunea ikusten da, eta, horregatik, Paleozoikoaren (ES) eta Mesozoikoaren (NW) arteko konexio ezin hobea da. Interes nagusiki estratigrafikoa izateaz gain, eroritako bloke handiak ikus daitezke.				



Konglomeratuak ertz biribilduak dituzten kuartzozko harkoskoz osaturik daude ia erabat; presio-disoluzio aztarnak dituzte, ez dute orientazio lehenetsi oso markaturik, eta pikor-sailkapen nahiko txikia dute.

Bibliografia espezifikoa

- MAGNA, 64. zk.
- EVE 64-IV zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121 or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (2008ko berrargitalpena; 1997an mikrofitxatan argitaratua). *El Manto de los Mármoles (Pirineo Occidental): Geología Estructural y Evolución Geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. 294 or. (1 CD). ISBN: 978-84-9860-178-7.